



## **BEASAINGO UDALAREN ETA LOREA KIROL KLUBAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA**

Beasainen, sinadura elektronikoan agertzen den datan

### **BILDURIK**

Alde batetik, Leire Artola Ugalde andrea BEASAINGO UDALAREN (IFK, P2002100B), ordezkari gisa, Alkatea den heinean, Korporazio osatzeko bileran 2023-06-17an kargu hori betetzeko izendatua izan zelako. Egintza honetarako ahalmena, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21,1b) artikulua ematen dio.

Bestalde, LOREA KIROL KLUBA G20657490 IFK zenbakiduna eta egoitza Beasainen duena, Erauskin Kalea, 6an helbidean, egintza honetan Jose Maria Ruiz Jimenez jauna jaunak/andreak ordezkaturik, adinez nagusia dena, helburu hauetarako helbidea Beasainen Erauskin Kalea, 6an duena eta ordezkari Batzar Orokorraren bileran burututako ahalmenen eskuordetzearen arabera jarduten duena.

Esku hartzaileek nahikoa gaitasun aitortzen diote elkarri egintza honetan ordezkatzeko erakunde izenean hitzarmen hau izenpetzeko eta, helburu horretarako,

### **HONAKO HAU ADIERAZI DUTE**

I) Espainiako Konstituzioak 43.3 artikuluan adierazten du botere publikoek herritarren bizi baldintzak hobetzeko ekintzak sustatuko dituztela.

II) 38/2003 Legeak, diru laguntzen lege orokorrak, 22.2.a) artikuluan aurreikusten du toki erakunde aurrekontuetan modu nominatiboan aurreikusitako diru laguntzak zuzenki emateko aukera.

III) 38/2003 Legeak, diru laguntzen lege orokorrak, 28. artikuluan xedatzen du hitzarmena izango dela toki erakunde aurrekontuetan modu nominatiboan aurreikusitako diru laguntzak bideratzeko ohiko tresna.

IV) Alkateak 2026-01-14an emandako Ebazpenak 2026/47), 2026-2028rako Diru-laguntzen Plan Estrategikoa onartu zuen. Bertan ondorengo helburu estrategikoa aurreikusten da: JARDUERA FISIKO ETA AISIALDIA SUSTATZEA ETA BULTZATZEA. Helburu hau isladatzen da 5. Lerroan eta 5.1 jardueran.

V) Beasaingo Udaleko 2026eko aurrekontuaren transferentzia arrunt eranskinean diru laguntza nominatibo bat aurreikusi da LOREA KIROL KLUBAren alde, kirolaren sustapenaren helburuarekin.

VI) Elkarrearen estatutuetan azaltzen den helburu sozialarekin bat dator hitzarmena.



VII) Helburu horiek bat datozen apirilaren 2ko 7/85 Legearen, 25.2l) artikulua eta apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17.1.19) artikulua Udalari ematen dien eskumenekin.

Aurreko guztia kontuan hartuta, lankidetzaren hitzarmena landu eta idatzi da jarraian adierazitako klausulen arabera

## **KLAUSULAK**

### **LEHENA. HITZARMENAREN XEDEA**

Hitzarmen honen xedea da LOREA KIROL KLUBAri **2.250,00** euroko diru laguntza nominatiboa ematea, jarraian adierazitako jardueren garapen eta egikaritzetik eratorritako gastuen finantzaketan laguntzeko helburuarekin:

-Beasainen wu-shu kirol jardueraren sustapena.

-Elkartearen gizarte sustapena.

### **BIGARRENA. BETEBEHARRAK ETA KONPROMISOAK**

Beasaingo Udalaren betebeharrak dira:

Alde batetik, Adostutako zenbatekoa duen diru laguntzaren ordainketa burutzea Elkartearen alde, hitzarmena sinatu ondoren, Hitzarmen honen bostgarren klausulan adierazitako ordainketa modua baliatuta.

Elkartearen betebeharrak dira:

1) 38/2003 Legeak, azaroaren 17koak, diru laguntzen lege orokorrak, 13. artikuluan xedatutako onuradun izateko debekuetan adierazitako egoeretan ez egotea, une honetan eta hitzarmen hau indarrean dagoen bitartean, eta Udalarekiko zerga betebeharrak egunean izatea.

2) Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izatea.

3) Udal organo eskudunak edo udal kontuhartzaitzak burututako egiaztapen eta kontrol jarduketak onartzea, organo hauek, emandako zenbatekoen erabileraren fiskalizazio eta kontrolerako eginkizunak baliatuta, eska diezaioketen informazio guztia emateko betebeharra izanda, 38/2003 Legearen xedatutakoaren arabera.

4) Udalari jakinaraztea diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko jasotako bestelako diru laguntzak, laguntzak, diru sarrerak edo baliabideak. Jakinarazpen hori laguntzak ezagutu bezain laster burutu beharko da eta, edonola ere, jasotako funtsei emandako erabileraren justifikazioaren aurretik.



- 5) Diruz lagundutako jarduerak burutzea.
  - 6) Jasotako funtsen erabilera justifikatzen duten dokumentuak gordetzea, dokumentu elektronikoak barne, kontrol eta egiaztapen jarduketan helburu izan daitezkeen heinean.
  - 7) Diruz lagundutako jardueren finantzaketaren izaera publikoa behar bezala adierazi eta hedatzea, Beasaingo Udalak helarazitako anagrama eta logotipoak karteletan, oroipen plaketan, inprimatutako materialetan, bitarteko elektroniko eta ikus-entzunezkoetan eta komunikabideetako aipamenetan erabilia.
  - 8) Diru laguntzen Lege orokorraren 37. artikuluan aurreikusitako kasuetan, jasotako funts publikoak itzultzea.
  - 9) Eginkizunen garapenean eragin litezkeen kalte eta guztiak estaltzeko moduko erantzukizun zibileko poliza bat izenpetzea.
  - 10) Jarduera guztietan Legeak eskatzen dituen segurtasun neurriak hartzea, erabiltzaile eta ikusleen segurtasuna babestuta.
  - 11) Elkarteak euskararen erabilera sustatuko du programatutako jardueretan.
- Beti ere honakoak kontuan hartuta: 10/1982 Legea, azaroaren 24koa, euskararen erabilera normalizatzeko oinarritzkoa; indarrean dagoen Euskararen Erabilera Sustatu eta Normalizatzeko Udal Ordenantza; eta Beasaingo Udalaren Euskara Sustatzeko Ekintza Plana.
- 12) Elkarteak kontuan hartuko ditu berdintasun irizpideak (1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legea onartzen duena) bai elkartearen baitan zein sustatutako proposamenen egikaritzean ere.
  - 13) Kirol Sariak: Udalaren interesa izanik, Beasainen edo Beasaingo pertsona eta entitateek kirol alorrean egindako lan publikoki aitortzea, Elkarteak inizatiba horretan aktiboki parte hartzeko konpromisoa hartu du eta horretarako pertsona arduraduna izendatuko du. Izangai edo izangai batzuk Elkarteak aurkeztuko ditu kategoria bakoitzeko ezartzen diren sarietarako, adieraziz horiek lortutako merezimenduak zeintzuk diren.

## **HIRUGARRENA. DIRU LAGUNTZAREN ZENBATEKOA ETA ORDAINKETA**

Kontusaila: 0261.481.341.00.18  
Titulua: lankidetzaren hitzarmena  
Kopurua: 2.250,00 €  
Onuraduna: LOREA KIROL KLUBA

Hitzarmen honen lehen klausulan adierazitako jarduerak garatzeko helburuarekin, Beasaingo Udalak, LOREA KIROL KLUBAren aldeko diru laguntza nominatibo gisa, **2.250,00** euro ordainduko ditu, jarraian adierazitako moduan:



- 1.250 euroko zenbatekoa ordaindu egingo da, hitzarmena sinatu ondoren, ordainketa aurreratu gisa, betiere egiaztatu bada onuradunak zerga betebeharra eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela.

Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 22 artikuluan eskatzen den egiaztapena, dagokion Ogasunarekiko zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatearen inguruan, edozein ordainketa egin aurretik, azken agiriekin indarra galtzen badu Udalak egiaztatuko du datuen bitartekaritzarako plataformetan edo horretarako gaitutako beste sistema elektroniko batzuetan kontsulta egingez.

Hala ere, onuradunak berariaz egin ahal izango dio aurka egiaztapen horri; kasu horretan, izaera hori egiaztatzen duten agiri eguneratuak aurkeztu beharko ditu.

- Azken ordainketa, aurrez izandako gastuen justifikazioa kontzeptu eta era honetan egin ondoren:

- Burututako jardueraren laburpen txostena.
- Gastuaren justifikazioa: justifikazio-kontu erraztua

-Excel artxiboan gastuen zerrenda sailkatu bat, hartzekodunaren eta dokumentuaren identifikazioa, zenbatekoa, jaulkipen-data eta, hala badagokio, ordainketa-data.

Dokumentua gaitasuna duen pertsonak sinatu beharko du.

- Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten diru-sarrera edo diru-laguntza guztien erantzukizuneko adierazpena, elkartearen diruzainak sinatutakoa, horien zenbatekoa eta jatorria adierazita. Baita jarduera horrekin lotutako beste sarrerarik ez dela egon, eta bestelako sarrerarik jasoko balute, horren berri izan bezain pronto Udalari jakinaraziko lioketela.

- Garatutako jardueraren esparruan sortutako publizitatea, iragarkiak eta dokumentazio grafiko eta idatziaren alea.

Hitzarmenaren xede den diru laguntza jaso ahal izateko, onuradunak ez du inolako bermerik eskaini beharko.

Hitzarmen honen xede den diru laguntza 2026 ekitaldirako indarrean dagoen aurrekontuko 0261.481.341.00.18 partidari egotziko zaio, behar bezalako nahikoa kreditu duena.



## **LAUGARRENA. DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN GASTUAK**

Diruz lagundu daitezke erabat beharrezkoak diren gastuak, jardueraren izaerarekin inolako zalantzarik gabe lotura dutenak eta diruz lagundutako jarduerak egikaritzeko aurreikusitako epearen amaiera baino lehen sortzen direnak. Honela, diruz laguntzeko moduzkotzat joko dira jardueren garapena 2026ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean proiektuaren garapen eta egikaritzetik sortu edo eratorritako gastu arrunt guztiak, betiere aldi horretan zehar modu eraginkorrean egikaritu badira.

Egikaritutako gastu gisa ulertuko da hitzarmen honetan ezarritako justifikazio epea amaitu aurretik modu eraginkorrean ordaindu dena.

Ez dira inolaz ere diruz laguntzeko moduko gastuak izango:

- a) Banku kontuetako interes zordunak.
- b) Interesak, errekariguak eta zigor administratibo edo penalak.
- c) Prozedura judizialetako gastuak.
- d) Zuzeneko zergak, berreskuratu edo konpentsatu badaitezke.
- e) Errentaren gaineko zergak.

## **BOSTGARRENA. BESTE LAGUNTZA BATZUEKIN BATERAGARRITASUNA**

Diru laguntza hau bateragarria izango da helburu bera duten diru laguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabide guztiekin, edozein administrazio edo erakunde publiko edo pribatuk emandakoak, edo Europar Batasunak edo nazioarteko erakundetakoak badira ere.

Zentzu horretan eta diru laguntzen Lege orokorraren 19.3 artikuluan xedatutakoa betez, jasotako diru laguntza guztien zenbatekoa ez da inolaz ere izango, bere horretan edo beste diru laguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabide batzuekin batera, diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa.

Jarduerak finantzatzeko, diru laguntzaz gain, funts propioak edo beste diru laguntza edo baliabide batzuk erabili badira, justifikazioan diruz lagundutako jardueretarako erabilitako funts horien zenbatekoa, jatorria eta aplikazioa zehaztu beharko dira.

## **SEIGARRENA. DIRU LAGUNTZAREN JUSTIFIKAZIOA ETA AZKEN ORDAINKETA.**

- 2026ko azaroaren 15erako gastuen justifikazioa era honetan aurkeztu beharko da:

- Burututako jardueraren laburpen txostena.
- Gastuaren justifikazioa: justifikazio-kontu erraztua

-Excel artxihoan gastuen zerrenda sailkatu bat, hartzekodunaren eta dokumentuaren identifikazioa, zenbatekoa, jaulkipen-data eta, hala badagokio, ordainketa-data.

Dokumentua gaitasuna duen pertsonak sinatu beharko du.



- Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten diru-sarrera edo diru-laguntza guztien erantzukizuneko adierazpena, elkartearen diruzainak sinatutakoa, horien zenbatekoa eta jatorria adierazita. Baita jarduera horrekin lotutako beste sarrerarik ez dela egon, eta bestelako sarrerarik jasoko balute, horren berri izan bezain pronto Udalari jakinaraziko lioketela.
- Garatutako jardueraren esparruan sortutako publizitatea, iragarkiak eta dokumentazio grafiko eta idatziaren alea.

Memoria honetan ondorengo kontuan hartu beharko da.

Diruz lagundu daitekeen gastuaren zenbatekoak obra-kontratuen kasuan 39.999,00 euroko (BEZik gabe) eta hornidura- eta zerbitzu-kontratuenekoan 14.999,00 eurokoa (BEZik gabe), klubak gutxienez hiru hornitzaile eskatu beharko die eskaintza egiteko, obra egin, zerbitzua eskaini edo ondasunak emateko konpromisoa hartu aurretik, eta hala egin duela egiaztatu beharko du, salbu eta haren ezaugarri bereziak direla eta merkatuan ez badago lan hori egin, zerbitzu horiek eskaini edo ondasun horiek hornitzen dituen aski erakunde, edo diru- laguntza eman aurretik gastua egin badago.

Izan diren eskaintzak diru-laguntzaren zurigarrietan edo eskaeran bertan aurkeztu behar dira eta aukeraketa eraginkortasun eta ekonomia irizpideak jarraitu behar ditu. Esleipena proposamen ekonomiko abantailatsuenari ez badagokio, hau espreski aukeraketa memoria batean justifikatu beharko da.

Diruz lagundutako jardueretan kantitate txikiko gastuetan faktura osoak aurkezteko zailtasunak daudenean, faktura sinplifikatuak (tiketa) onartu daitezke hauekin batera elkartearen aitopena aurkeztuz jarduerarekin loturiko gastuak direla eta beti ere Fakturatzeko betebeharra arautzen duen Erregelamendua, azaroaren 30eko 1619/2012 Errege Dekretuak jarraituz.

## **BEDERATZIGARRENA. JARRAIPEN, ZAINZA ETA KONTROL MEKANISMOAK**

Jarraipen Batzorde Misto parekide bat sortuko da, alderdi sinatzaile bakoitzaren aldetik ordezkari batekin, Udaleko Alkateak eta erakunde onuradunaren organo eskudunak izendatuko dituztenak, eta batzorde horren helburuak izango dira hitzarmena sustatzea eta haren jarraipena burutzea, ager litezkeen zalantzak argitzea eta hitzarmena ebaluatzea.

Batzorde honek eginkizun hauek izango ditu:

- Hitzarmenaren eta sinatzaileek izenpetutako konpromisoen egikaritzearen zaintza eta kontrola.
- Hitzarmenaren egikaritzean ager litezkeen interpretazio eta betetze arazoak ebaztea.

Hitzarmen honetan berariaz aurreikusi ez diren kasuetarako, batzordea arautuko da, 40/2015 Legeak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarenak, 15. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera, administrazio publikoetako kide anitzeko organoen funtzionamendua arautzen dutenak, alegia.



## **HAMARGARRENA. ONARTUTAKO BETEBEHARRAK ETA KONPROMISOAK EZ BETETZEAREN ONDORIOAK**

Sinatzaileetako batek onartutako betebeharrak eta konpromisoak beteko ez balitu, ez betetzea burutu duen alderdiari jakinarazpena helarazi beharko zaio, epe jakin baten barruan bete ez direla uste den betebeharrak eta konpromisoak bete ditzan. Ezarritako epea amaituta, ez betetzeak jarraituko balu, hitzarmena suntsiarazi egingo da.

Diru laguntzaren onuradunak onartutako betebehar eta konpromisoak beteko ez balitu, emandako zenbatekoaren zati proportzionala itzuli beharko du, gehi diru laguntza ordaindu zen momentutik dagozkion berandutze interesak.

Jasotako zenbatekoen erabateko itzulera edo itzulera partziala burutu beharko da hitzarmen honetan aurreikusitako baldintzak edo udal kontu hartzailetza edo organo eskudunak ezarritako justifikazio betekizunak betetzen ez badira, bai eta diru laguntzen Lege orokorraren 37. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitako kasuetan ere.

## **HAMAIKAGARRENA. HITZARMENA SUNTSIARAZTEKO ARRAZOIAK**

Suntsiarazteko arrazoiak izango dira:

- Ezarritako indarraldia amaitzea, hau da, 2026ko abenduaren 31.
- Alderdi sinatzaileen arteko ahobatezko akordioa.
- Alderdietako batek bere gain hartutako betebehar edo konpromisoak ez betetzea.
- Hitzarmena baliogabetzat jotzen duen erabaki judiziala.

Hitzarmena suntsiarazteak azkendu egingo ditu alderdiek onartutako betebehar eta konpromisoak, eta baita prestazioen likidazioa ere. Helburu horietarako, aplikagarria izango da Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren Legearen 52. artikuluan xedatutakoa, suntsiaraztearen ondorioei eta likidazio eta kalte ordainen araubideari dagokienez.

Hitzarmenaren helburuak bete direla ulertuko da haren xedea burutu bada bi alderdientzat onargarriak diren baldintzetan.

Egikaritze prozesuan dagoen jarduketarik egongo balitz, alderdiek, jarraipen, zaintza eta kontrol batzordearen proposamenari jarraituta, abian dauden jarduketan jarraipena eta amaiera adostu ahalko dute, horiek amaitzeko epe luzaezina ezarrita.

## **HAMABIGARRENA. DATU PERTSONALEN BABESERAKO ARAUBIDEA**

Datuen babeserako araubideari dagokionez, Udalak eta AITZ-ZORROTZ ELKARTEAK 3/2018 Lege Organikoak, abenduaren 5ekoak, datu pertsonalak babestekoak eta eskubide digitalak bermatzekoak, aurreikusitako derrigorrezko xedapenak errespetatu beharko dituzte.



Beraz, hitzarmenaren garapenaren ondorioz jasotzen diren datu pertsonalak alderdi sinatzaileen erantzukizunpekoak diren datu fitxategietan sartuko dira eta hitzarmenean aurreikusitako obligazioak betetzeko soilik tratatuko dira.

### **HAMAHIRUGARRENA. HITZARMENAREN INDARRALDIA**

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren Legea indarrean sartu ondoren, eta haren 49. Artikuluan xedatutakoaren arabera, hitzarmenaren indarraldia ez da izango 4 urtetik gorakoa, alderdiek aho batez luzapen bat edo gehiago adosteko aukera kaltetu gabe, gehienez ere lau urtetan zehar hasierako epea amaitu zenetik.

Hitzarmen honek legezko xedapen hau betetzen du, sinatu zenetik 2026ko abenduaren 31ra bitarteko indarraldia baitu. Hitzarmenak ez du luzapenik onartzen.

### **HAMALAUGARRENA. ARAUBIDE JURIDIKOA**

Hitzarmen honi, aurrekarietan letik VIIra aipatzen direnaz gain, ondorengoak aplikatuko zaizkio:

- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena.
- 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena.
- 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, 4. artikuluan berariaz xedatutakoaren arabera, hitzarmenak legearen aplikazio eremutik kanpo uzten dituen, lege horren printzipioak ager litezkeen zalantzak eta gabeziak argitu eta osatzeko aplikagarriak izan arren.
- Dirulaguntzen Legea garatzen duen 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa eta dirulaguntzei buruzko udal ordenantza (GAO, 2018-06-14).

### **HAMABOSTARRENA. BALIABIDE MATERIALAK ETA GIZA BALIABIDEAK.**

LOREA KIROL KLUBAK hitzarmen honetatik eratorritako obligazioak betetzeko beharrezkoak diren baliabide materialak eta giza baliabideak izango ditu, baina haren langileek ez dute inolaz ere izango lan arloko loturarik edo lotura juridikorik Beasaingo Udalarekin.

LOREA KIROL KLUBAK, hitzarmen honetatik eratorritako jardueren garapenean, errespetatu egingo du 1/1996 Lege Organikoak, adingabearen gaineko babes juridikoari buruzkoak, xedatutakoa eta, zehazki, haren 13.5 artikuluan eskatutako akreditazioari dagokionez, adingabeekin harremana dakarten lanbideak, ogibideak eta jarduerak burutzeko kasuan.



## **HAMASEIGARRENA. DIRU LAGUNTZA ITZULTZEA**

Diru Laguntzen Lege Orokorraren Erregelamenduaren 90. artikuluan xedatutakoaren arabera, onuradunak jasotako zenbatekoa modu boluntarioan itzuli ahalko du, Udalak aurretiaz halakorik eskatu gabe.

Kasu horretan, diru laguntzaren onuradunak Beasaingo Udalaren aldeko banku transferentzia bat burutu beharko du. Diru sarreran zehaztu beharko dira diruz lagundutako jarduera, espediente zenbakia eta onuradunaren identifikazio datuak.

## **HAMAZAZPIGARRENA. GATAZKAK EBAZTEA ETA ARAUBIDE JURIDIKOA**

Hitzarmen honen aplikaziotik erator litezkeen interpretazio, aldaketa, suntsiarazte eta ondorioen inguruan ager litezkeen gatazkak alderdien arteko akordio bidez ebartziko dira eta, halakorik ezean, alderdi hauek administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren eskumenekoak izango dira.

Adierazitakoaren arabera eta sinatzaileei dagozkien ahalmenak baliatuta, lankidetzaz hitzarmen hau izenpetu dute.

